

*Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegiko hezkuntza-komunitateari: (más abajo en castellano)*

*Zirkular honen bidez, jakinarazi nahi dizuegu Hezkuntza Sailak erabaki duela maiatzaren 25a jartzea eskola-jarduera presentzialari berriro ekiteko data gisa.*

*Hezkuntza Sailak ikastetxeei ezarri dizkigun gidalerroei jarraituz, Zulaibar Lanbide Ikastetxeak, beraz, jarduera hauetara bideratutako eskola presentzialei ekingo die maiatzaren 25etik aurrera:*

- Telematikoki gauzatu ezin diren jarduera praktikoak egitea tailerretan*
- Ikasturte honetako 1. eta 2. ebaluazioetan gainditu gabeko edukiak indartzeko eskolak eta azterketak egitea 1. eta 2. mailako ikasleentzat.*
- 3. ebaluazioari dagozkion amaierako azterketak egitea*

*Gainerako jarduerak on-line lantzen jarraituko dira, konfinamendu-aldi honetan egin dugun bezala.*

*Zulaibar Ikastetxea itzulerako ordutegiak mailaka planifikatzen ari da, bai eta jarduera-protokoloa lantzen ere, ikasleen eta irakasleen segurtasuna bermatzeko. Datorren astean zehar, eta tutoreen bidez, talde bakoitzari jakinaraziko zaio itzulerako ordutegia, bai eta ikastetxean egoteko jarraitu beharreko higiene- eta segurtasun-neurriak ere.*

*Antolaketari dagokionez, eta segurtasun-neurriak maximizatzeko asmoz, ikastetxeak erabaki du azken asteotan eskola-garraioari berriro ez ekitea.*

*Animo denoi!!!*

*Agur bero bat*

*Xabier Aldama Vázquez*

*Zuzendaria*